



HEZKUNTZA BATZORDEA	COMISIÓN DE EDUCACIÓN
DATA: 2013-06-12	FECHA: 12-06-2013
HASTEKO ORDUA: 16:00 BUKAERA ORDUA: - LEKUA: UDALETXEKO BATZAR ARETOA	HORA DE INICIO: 16:00 HORA DE FINALIZACIÓN.: - LUGAR: SALA DE JUNTAS DEL AYUNTAMIENTO
AGERTU DIRENAK:	ASISTENTES:
<p>Aintzane (Baztan Ikastola) Maite Iturralde (Baztan Ikastola) Itziar Bidegain (San Frantzisko Xabier IP / CP San Francisco Javier) Isabel Ibarrola (San Frantzisko Xabier IP / CP San Francisco Javier) Iñaki Beltran (Lekarozko Institutua) Idoia Goñi (San Frantzisko Xabier IPko GE / APYMA de CP San Francisco Javier) Belen Belarra (San Frantzisko Xabier IP / CP San Francisco Javier) Xabi Ballarena (Oronozko eskola / Escuela de Oronoz) Kruzi Delgado(Iruritako eskola / Escuela de Irurita) Kontxi Zeberio(Iruritako eskola / Escuela de Irurita) Elurre Iriarte (Arizkungo eskolako GE / APYMA de Escuela de Arizkun) Eneko Fernandez (Herrietako eskoletako koordinatzailea / Coord. Escuelas de pueblos) Maite Ariztegi (Lanbide Eskola / Escuela Laboral) Maitane Maritorea (BILDUko zinegotzia / Concejala de BILDU) Maite Oteiza (BILDUko zinegotzia / Concejala de BILDU)</p>	
GAI-ZERRENDA:	ORDEN DEL DÍA:
<ol style="list-style-type: none"> 1. Aitzineko aktaren onestea 2. Guraso eskola 3. Musika Eskolako pianoa 4. AEK: gurasoendako euskara klaseak 5. Elizondoko Lanbide Eskolatik HLKPren desagertzea 6. Baztango mintzoa erabiltzeko gida liburua 7. Juan Goñi: txorien kanta eta kabiak 8. Galde-eskeak 	<ol style="list-style-type: none"> 1. <i>Aprobación del acta anterior</i> 2. <i>Escuela de padres y madres</i> 3. <i>El piano de la Escuela de Música</i> 4. <i>AEK: clases para padres y madres</i> 5. <i>Desaparición de la escuela laboral de Elizondo del PCPI</i> 6. <i>Guía para la utilización del euskera baztanés</i> 7. <i>Juan Goñi: cantos y nidos de pájaros</i> 8. <i>Ruegos y preguntas</i>
ERABAKIAK:	ACUERDOS:
<p>1. Aitzineko aktaren onespena Aitzineko aktan zegoen akats bat zuzendu da: Herrietako eskolen besta irailaren 22an izanen da, ez 20an aktan ageri zen bezala. Gainerakoan, aho batez onetsi da.</p>	<p>1. Aprobación del acta anterior <i>Se corrige un fallo en el acta de la sesión anterior: la fiesta de las escuelas de los pueblos se celebrará el 22 de septiembre, no el 20 como aparece en el acta. En lo referente a los demás puntos, se aprueba por unanimidad.</i></p>



<p>2. Guraso Escola Arantxa Gamio Gizarte Zerbitzuetako langilea etorri da GURASO ESKOLEN gain informazioa ematerat. Ekainaren 18, 25 eta uztailaren 2an, hiru eguneko tailer bat eskainiko da Arizkunenean Mauge Cañada psikologoaren eskutik. Erratzun bertze hiru eguneko tailerra antolatua dago udazken aldera. NAHIArekin hilabetero gai desberdinak lantzeko saioak egin nahi dituzte: <i>osasan mentala eta familia</i> saioa aurreikusia dute, nahiz eta oraindik data ez dagoen zehaztua, <i>aitatxi-amatxien papera biloben zainketan...</i> Bertzalde, guraso elkarteek antolatzen dituzten saio, hitzaldi, tailerren... berri Udaletxeko gizarte zerbitzuei emanez gero, hauek informazioa hedatzen lagunduko lukete, hortaz, helbide elektronikoak ematea aski izanen litzateke sarea gehiago hedatzeko.</p>	<p>2. Escuela de padres y madres <i>La trabajadora de los Servicios Sociales Arantxa Gamio ha venido a informar sobre GURASOEN ESKOLA (Escuela de padres y madres). La psicóloga Mauge Cañada ofrecerá en Arizkunenea un taller de tres sesiones el 18 y 25 de junio y el 2 de julio.</i> <i>Se ha organizado en otoño otro taller de tres días en Erratzu.</i> <i>Se tiene la intención de trabajar mensualmente con NAHIA sesiones para tratar diferentes temas: tienen previsto el tema salud mental y familia pese a que todavía no se ha concretado la fecha; el rol de abuelos y abuelas en el cuidado de las nietas y nietos...</i> <i>Además, si se informa a los Servicios Sociales del Ayuntamiento de las actividades, charlas, talleres... que organizan las asociaciones de madres y padres, éstos pueden ayudar a divulgar la información. Así pues, dar las direcciones electrónicas sería suficiente para extender más la red.</i></p>
<p>3. Musika Eskolako pianoa Musika eskolan erabiltzen ez den piano bat omen dago aspaldi. Rosa Mari Sanchezek Kristina Urtasuni (koro ttikiko zuzendaria eta herrietako eskoletako irakaslea) galdetu zion ea interesik izanen luketen pianoan. Kristina ez ezik, bertze norbait ere interesatua egonen balitz, aste bateko epea emanen litzateke interesdunak izena eman ahal izateko. Inork izenik emanen ez balu, koro ttikiaren eta herrietako eskolaren esku geldituko litzateke.</p>	<p>3. El piano de la Escuela de Música <i>Hace tiempo que en la Escuela de Música hay un piano que no se utiliza. Rosa Mari Sánchez le preguntó a Kristina Urtasun (directora del Coro Infantil y maestra de las escuelas de los pueblos) si tendrían interés en el piano. Si además de Kristina hubiera otra persona interesada, habría una semana de plazo para dar el nombre. Si nadie diera su nombre, el piano quedaría en manos del Coro Infantil y de las escuelas de los pueblos.</i></p>
<p>4. AEK: gurasoendako euskara klaseak guraso erdaldunak diren eta seme-alabak D eredurat igortzen dituzten gurasoendako AEK-ko klaseak hartzeko aukera dago edozein herritan. Elizondorat etorri beharrean, herriren batean gutieneko kopurua biltzen bada (bortz lagun inguru) AEK herri hortarat joanen litzateke euskara klaseak ematerat. Informazio hau Guraso Elkarteei helaraztea eskatzen da. Dena den, zehaztapenak iraila alderat emanen lirateke, aurrematrikulazio kanpainan hain zuzen (zenbat egun, orduak, prezioa...)</p>	<p>4º AEK: clases de euskera para madres y padres <i>Existe la opción de que las madres y padres que no saben euskera y tienen a sus hijas e hijos matriculados en el modelo D reciban clases de euskera de AEK en cualquier pueblo del Valle. En vez de venir a Elizondo, si se cuenta con un número mínimo (unos 5 alumnos), AEK iría a dar clases de euskera al lugar. Se solicita que se comunique esa información a las asociaciones de madres y padres. De todas formas, en septiembre, en la campaña de matriculación, se darán los detalles (cuántos días, horas, precio...).</i></p>
<p>5. Elizondoko Lanbide Eskolatik HLKPren desagertzea Elizondoko Lanbide Heziketan DBHko titulua lortzen ez duten ikasleendako bi aukera zeuden: alde</p>	<p>5º Desaparición del PCPI de la Escuela Laboral de Elizondo <i>En el Instituto de Formación Profesional de Elizondo existían dos opciones para los alumnos</i></p>



<p>batetik, HLKP SOLDADURA (oinarrizkoa 2 urte) eta bertze aldetik, HLKP ADMINISTRATIBOA (tailerra urte bat).</p> <p>Maiatza aldera hezkuntzatik deitu zieten HLKP ADMINISTRATIBOA kendu behar zutela erranez, nahiz alde zurretik jakin tailer horretan bartz pertsonak bederen izena emana zutela aurrematrrikulaziotan.</p> <p>Eskualdearendako eta behar gehien duten ikasleendako galera ikaragarria zela ikusirik, eskualdeko eskola kontseiluek gutun bana igorri zioten kontseilariari, ikuskariari, Lanbide Heziketako zuzendariari...eskualdeko udalek ere Maiterekin bilkura egin ondotik prentsa oharra, kontseilariarekin bilkura... eskatuak zituzten.</p> <p>Astelehenean , ekainaren 10ean, Dabid Herreros Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak Lekarozko instituturat deitu zuen tailer horretan matrrikulatzeko baimena ematen zuela erranez. Horrez gain, orain artio urte bateko tailerra zena, bi urtekoa izanen zela erranez. Hau da, orain artio 16 urte behar baziren tailer horretan sartzeko, hemendik goiti 15 urterekin sartzen ahalko da eta gainera, DBHko titulua lortzeko aukera izanen dute.</p>	<p><i>que no obtenían el título de ESO, por un lado, PCPI (Programa de Cualificación Profesional Inicial) SOLDADURA (básico de 2 años); y , por otro lado, el PCPI ADMINISTRATIVO (taller de un año).</i></p> <p><i>En mayo se les llamó desde Educación para informar que el PCPI ADMINISTRATIVO iba a ser eliminado, a pesar de saber de que en el periodo de prematriculación cinco personas se habían inscrito en ese taller.</i></p> <p><i>Visto que es una pérdida grande para la zona así como para los alumnos y alumnas que más necesidades tienen, el Consejo de Educación de la zona les remitió una carta al consejero, al inspector, al director de Formación Profesional... Los Ayuntamientos de la zona también, tras reunirse con Maite, hicieron su nota de prensa, solicitaron reuniones con el consejero...</i></p> <p><i>Finalmente, el 10 de junio, David Herreros, director general de Formación profesional, telefoneó al Instituto de Lekaroz informando de que se autorizaba la matriculación en ese taller. Además, el que hasta ahora era un taller de un año, pasaría a ser de dos años. Es decir, se dijo que si hasta ahora se requerían 16 años para acceder a ese taller, a partir de ahora se podría acceder con 15 y además, los alumnos tendrán opción de conseguir el título de ESO.</i></p>
<p>6. Baztango mintzoa erabiltzeko gida-liburua</p> <p>Ikasturte honetan hainbat irakaslek Maite Lakarren eskutik “baztango mintzoa” izeneko ikastaroa egin dute Lekarozko ILZn. Ikastaro honek izan zuen harrera ona ikusirik eta irakasleen balorazioa kontuan harturik, pentsatu zen ikastaroan ikusitakoa liburuxka batean bildu eta herri guztietako eskolei ematea, ahal eta nahi izanez gero urteko UPOan sartzeko.</p> <p>2013/2014 ikasturterako liburuxka prest eduki nahi da. Hurrengo Hezkuntza Batzordean egingen litzateke banaketa baldin eta bukatua baldin badago.</p>	<p>6ª Guía-libro para la utilización del euskera baztanés.</p> <p><i>Este curso algunas profesoras y profesores han realizado en el CAP de Lekaroz el curso “Baztango mintzoa” con Maite Lakar. Vista la buena acogida que tuvo ese curso y tomada en cuenta la valoración de los profesores que participaron, se pensó en reunir los contenidos del curso y realizar una publicación que se repartirá a todas las escuelas del valle, para a poder ser meterlo anualmente en el UPO. Se quiere tener lista la publicación para el curso 2013-2014. Se repartiría en la próxima reunión de la Comisión de Educación si está lista.</i></p>
<p>7. Galde-eskeak eta nork lekarkeena</p> <p>JUAN GOÑI: TXORIEN KANTA ETA HABIAK: Heldu den ikasturtera begira txorien habiak egiteko proposamena ailegatu da. Habia horiek egiteko bertako zurgindegiekin solastatu behar dute ea soberan dituzten puxkak emanen ote lituzketen. Beraiek arduratuko lirateke materiala ekartzeaz.</p>	<p>7ª Ruegos, preguntas y otras aportaciones.</p> <p>JUAN GOÑI: CANTOS Y NIDOS DE LOS PÁJAROS: <i>Mirando hacia el próximo año ha llegado la propuesta de hacer nidos de pájaros. Para hacer esos nidos van a hablar con las carpinterías locales a ver si pueden darles trozos de madera sobrante. Ellos se encargarían de traer el</i></p>



Kutxa bakoitzak 6 € balio ditu. Plastika ikasgaien egitea aurreikusten da, eta egunen batean suhiltzaileekin nonbait paratzea.

Urriaren 1a hegaztien nazioarteko eguna dela kontuan hartuz, data horren bueltan egin nahiko litzateke. Tailerra espainolez izanen litzateke, Juan Goñik ez baitaki euskaraz.

BARRASKILO KONTSUMO ELKARTEA: eskoletako jantokietan bertako produktu ekologikoak ea hornitzaileekin izanen ote luketen jakiteko, bilkura eginen dute Maite eta Maitanek bertako kontsumo elkartearekin. Ondotik eskolekin bilkura eginen da interesik ote den ikusteko.

Haur eskolako jantokiko pliegoa jada argitaratu da. Norbaitek interesa izanen balu, informazio www.navarra.es web gunean dago ikusgai.

GARBIKETAK: Orain artio herrietako eskolak eta kontsultak garbitzen zituztenak aseguratza sozialik gabe ari ziren lanean. Hau guztia erregulatzeko asmoz, orain artio langile guztiarekin bilkura bat egin zen eta beraien lana "legalizatzeko" hiru enpresa sortzearen aukera proposatu zitzaien.

Honen harira Isabel Ibarrolak galdetu du ea San Franzisko Javierreko garbiketaren lanen pliegoa atera den. Maitek azaldu du horretan ari direla. Kontua da pliegoa lau urtetarako ateratzen bada edozeinek parte har dezakeela (enpresa handiek, kanpokoek...), bi urtetarako ateratzen bada berriz, bertako langileek hartzeko aukera izanen lukete. Uda honetan egiteko asmoa dago.

NABARLINGUA: Udan ingeleseko klaseak emateko San Franzisko Javier ikastetxean. Proposamen honen berri Elizondoko eskolarat ailegatu zen, baina orain artio ez bezala, orain enpresa pribatu baten esku dago "ikastaro" hau, hezkuntzak dena CENAI enpresaren eskuetan utzi baitu. Honen baimena Udalak eman beharko luke.

NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA: Eskoletan bertsolaritza klaseak emateko zein ikastetxe hautatu behar ditugun jakiteko emaila igorri dute Bertsozale elkartetik. Heldu den ikasturtean Elizondoko San Franzisko Javier eta herrietako bi eskolei toka zaie. Dena den, Maitanek galdetuko du ea zein irizpideren

material.

Cada caja tiene un precio de 6 €. Se preve hacerlos en la asignatura de plástica y colocarlos algún día con los bomberos.

Teniendo en cuenta que el 1 de octubre es el día internacional de las aves, se quiere hacerlo en torno a esa fecha. El taller será en castellano ya que Juan Goñi no sabe euskera.

LA ASOCIACIÓN DE CONSUMO BARRASKILO: Maite y Maitane se entrevistarán con la asociación local de consumo para saber si podrían proveer a los comedores escolares con productos ecológicos locales. Posteriormente se realizará una reunión con las escuelas para saber si están interesadas.

El pliego de comedor escolar ya está publicado. Si alguien tuviera interés la información está disponible en la web www.navarra.es.

LIMPIEZAS: Hasta ahora las personas que limpiaban las escuelas y los consultorios estaban trabajando sin seguridad social. Con intención de regular esa situación se hizo una reunión con todo el personal y se les propuso la idea de crear tres empresas para "legalizar" su trabajo.

En relación a eso Isabel Ibarrola pregunta si ha salido el pliego de los trabajos de limpieza del Colegio San Francisco Javier. Maite explica que están en ello. La cuestión es que si se saca el pliego para cuatro años cualquiera (empresas grandes, de fuera...) puede tomar parte. Hay intención de hacerlo este verano.

NABARLINGUA: Clases de inglés en verano en el Colegio San Francisco Javier. Esta propuesta llegó a la escuela de Elizondo pero, a diferencia de lo que pasaba hasta este momento, ahora "el curso" está en manos de una empresa privada, ya que Educación ha dejado todo en manos de la empresa CENAI. El Ayuntamiento tendría que dar este permiso.

ASOCIACIÓN DE BERTSOLARISMO DE NAVARRA. Han enviado un e-mail desde la Asociación de Bertsolarismo para saber qué escuelas se van a elegir para dar clases de bertsolarismo. El próximo año les toca al Colegio San Francisco Javier y a dos escuelas de pueblos. Maitane ha



<p>arabera hautatzen den urtero Elizondoko ikastetxe bat (Ikastola eta eskola publikoa aldizkatuz) eta herrietako eskolak lau urteetarik behin. (Nafarroako Bertsozale elkartearen galdetuko da)</p> <p>Eneko Fernandezek erranen du heldu den ikasturtean zein eskola toka diren.</p> <p>Bertzalde, aurten Arizkunen eta Zigan aritu dira bertsolaritzako klaseak ematen. Ikasleen motibazio maila ikusirik, eskolaz kanpo ere aritu dira Haurren Bertso eskolak ematen.</p> <p>POLIKIROLDEGIA: Maite Ariztegi galdetu du ea polikiroldegia Udalarena den, hala izatekotan zer egin behar den erabili ahal izateko, Lanbide Eskolako gorputz heziketako irakasleak eguraldi txarretan hori erabiltzeko nahia azaldu baitu. Elixabet kirol teknikariarekin egonez gero eta aitzinetik ordutegia zehaztuz gero, ez legoke inongo arazorik eskola batek baino gehiagok erabiltzeko.</p> <p>ORDUTEGI ALDAKETA: Elurrek aipatu du ea zertan den ordu aldaketaren afera. Herrietako eskoletan asteartean bilkura izan zuten eta ondotik izandako bozketan ordu aldaketaren aurka azaldu ziren gurasoak. Itziarrek eta Isabelek aipatu dute solas anitz hedatu direla eta ez denak egiak, hortaz, hobe dela afera gehiago ez nahasteko, dagoenean uztea. Beraz, heldu den ikasturterat begira oraingo ordutegi bera izanen dute</p>	<p><i>preguntado sobre el criterio mediante el que se elige cada año un centro escolar de Elizondo (alternando la Ikastola y el colegio público) y a las escuelas de los pueblos sólo les toca una vez cada cuatro años. Se preguntará en la Asociación de Bertsolarismo.</i></p> <p><i>Eneko Fernández informa de las escuelas a las que les toca el próximo curso.</i></p> <p><i>Además, este año se han dado clases de bertsolarismo en Arizkun y Ziga y viendo la motivación de los alumnos y alumnas, han estado dando clases de bertso para niños y niñas también en horario extraescolar.</i></p> <p>POLIDEPORTIVO: <i>Maite Ariztegi pregunta si el polideportivo es municipal y si es así, qué hay que hacer para poder utilizarlo, ya que el docente de Educación Física de la Escuela Laboral ha mostrado interés para usarlo en días de mal tiempo. Hablándolo con Elixabet, la técnica de deportes, y estableciendo un horario, no habría ningún problema para que se utilizara por más de un centro escolar.</i></p> <p>CAMBIO DE HORARIO: <i>Elurre ha preguntado cómo va el asunto del cambio de horario. El martes hubo reunión en las escuelas de los pueblos y en la votación que hubo posteriormente los padres y madres se mostraron contrarios al cambio de horario. Itziar e Isabel comentan que se han extendido muchos rumores, y muchos inciertos y que para no crear más problema, es mejor dejar el asunto como está. De cara al próximo curso, el horario será el mismo.</i></p>
<p><u>HURRENGO BILKURA</u> urriaren 3an, ortzegunarekin, 17:00etan izanen da.</p>	<p><u>LA PRÓXIMA REUNIÓN</u> tendrá lugar el 3 de octubre, jueves, a las 17:00 h.</p>